



## ESKOLAKO OHARRAK

### IHOTEAK

Laster Ihoteak izango ditugu, otsailaren 5, 6 eta 7ko asteburuan hain zuzen ere. Horregatik, prestaketa ahalik eta azkarren hasi behar dugu. Eskolan berriak diren familiek eta oraindik zaku jantziak ez dituzten familiek, beraien seme-alaben tutoreari eskatu behar dizkiete, honela guk hemendik bertatik bideratuko baitugu beharrezkoa den materiala: mozorroa egiteko zaku oihala, biesak eta kriskitinak, ondorengo prezioa dute: 6 euro ikasleentzat eta 8 euro helduentzat.



### TRANSPATIOA GONBIDAPENA

Gaur arratsaldean, ostiralean, Transpatio proiektua herriko plazan gozatzeko aukera izango duzue. HURBIL ZAI TEZTE.



### ESKOLA KIROLA

Covid19ak oraindik gure eguneroko bizitza erabat baldintzatzen baldin badu ere, gure eskolako orduz kanpoko ekintzak hastea erabaki dugu familia eta irakasleok elkarrekin osatzen dugun Batzorde Iraunkorrean. Edozein informazio beharko bazenute, Andoni da koordinatzaile berria eta bere helbide elektronikoa hau da: [eskolakirola@elizalde.eus](mailto:eskolakirola@elizalde.eus).



ESKOLA  
KIROLA

## ELIZALDETARRAK JUDO ELKARTEA

2020/21 ikasturtea

Guraso agurgarriak, otsailean hasiko gara judo-jarduerarekin Elizalde ikastetxean.

Covid-19 protokoloa dela eta, talde gehienek asteen saio bat egingo dute.

Ordutegiak:

H.H.5 urte.	OSTIRALA	13:45-14:45
L.H.1	ASTELEHENA	13:45-14:45
L.H. 2.	ASTEAZKENA	13:45-14:45
L.H. 3.	OSTEGUNA	13:45-14:45
L.H. 4. eta 5.	ASTELEHENA– ASTEAZKENA	12:30-13:30

Hileko kuota:

-asteen bi egunetan, 31 euro. (bi anaia-arreba 56 €)

-asteen egun bat, 20 euro. (bi anaia-arreba 34 euro) Judo-jantzirik gabe hasiko ditugu klaseak. Judokek judozko gerrikoa bakarrik ekarriko dute.

Ikasle berriei gerriko zuri bat emango diegu.

Bidali izena eta maila helbide elektronikoko honetara: [alexbarallo@telefonica.net](mailto:alexbarallo@telefonica.net)

KLASEAK HASIKO DIRA: OTSAILAK 1 (ASTELEHENA)



shutterstock

IMAGE ID: 007021190  
www.shutterstock.com

**JENDEAK EKARRITAKO GAUZAK BERROGEIALDIAN EDUKI  
ONDOREN GAUZAK BANATZEKO UNEA IRITSI DA**



**URTARRILAK 30, 16:30-19:00  
BITARTE ABARAXKAN**

**TRUKEA!**

**ZATOZTE ETA HARTU BEHAR  
DUZUENA!**



[www.elizaldekogurasoelkarteia.blogspot.com.es](http://www.elizaldekogurasoelkarteia.blogspot.com.es) eta [www.elizalde.eus](http://www.elizalde.eus)